

160/2014 EBAZPENA, 2014ko abenduaren 31koa, Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko zuzendariarena. Honen bidez, deialdia egiten da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko Donostia-Antiguako OMZko osasun mentaleko atalburu lanpostu bat lehiaketaren bitartez betetzeko.

Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko Donostia – Antigua OMZko atalburu lanpostua, hutsik dago. Hori dela-eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, lanpostu hori lehiaketa bitartez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du zuzendaritza honek, honako oinarrien arabera:

OINARRIAK:**1.- Parte hartzeko baldintzak.**

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute honako baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

a) Estatutario, funtzionario edo lan-kontratudun finkoa izatea Osakidetzako edozein zentrotan, edo pertsonal estatutario finkoa izatea Osasun Sistema Nazionaleko Erakunde Sanitarioetan, eta A1 lanbide-taldekoko izatea.

b).- Medikuntza eta Kirurgiako lizentziaduna, Psikiatriako espezialitate titulazioa edukitzea.

c).- 3 urteko lan-esperientzia izatea gutxienez

2.- Merituen baremoa (gehenez 60 puntu)

Merituen balorazioak fase bi edukiko ditu:

2.1.- Proiektua eta haren defentsa (gehenez 30 puntu)

Fase honetan izangaiek epaimahai kalifikatzailearen aurrean dagokion Zentroaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Memoria-Proiektua jendaurrean azalduko dute. Era berean, elkarriketa egingo dute.

2.2.- Merituen balorazioa (gehenez 30 puntu). Puntuazioa honela banatuko da:

- Lan-esperientzia

RESOLUCIÓN 160/2014, de 31 de diciembre, del Director de la Red de Salud Mental de Gipuzkoa, por la que se convoca la provisión, mediante concurso, de un puesto de Jefe/a de Unidad de Salud Mental del CSM Donostia Antigua en la Red de Salud Mental de Gipuzkoa de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Encontrándose vacante el puesto de Jefe/a de Unidad del CSM de Donostia-Antigua en la Red de Salud Mental de Gipuzkoa, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 28 Norma Común Tercera de la Ley 8/1997 de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, en el Decreto 186/2005, de 19 de julio, por el que se regulan los puestos funcionales de Osakidetza, y en el Decreto 255/1997 de 11 de noviembre, esta Dirección acuerda anunciar convocatoria pública para su provisión, por el procedimiento de concurso, con arreglo a las siguientes:

BASES:**1.- Requisitos de participación.**

Podrán participar en esta convocatoria quienes acrediten el cumplimiento de los siguientes requisitos:

a).- Ser estatutario, funcionario o laboral fijo en cualquier organización de servicios de Osakidetza, o ser personal estatutario fijo de las Instituciones Sanitarias del Sistema Nacional de Salud y pertenecer al grupo profesional A1.

b).- Hallarse en posesión de la titulación de Licenciado en Medicina y Cirugía con especialidad en Psiquiatría

c).- Experiencia profesional mínima de 3 años.

2.- Baremo de méritos (máximo 60 puntos).

La valoración de méritos constará de dos fases:

2.1.- Proyecto y su defensa (máximo 30 puntos):

Consistirá en la exposición pública ante el tribunal calificador de la Memoria-Proyecto explicativa sobre la organización y funcionamiento del Centro de que se trate, y la realización de una entrevista con el/los aspirante.

2.2.- Valoración de méritos (Máximo 30 puntos). La puntuación se distribuirá del siguiente modo:

- Experiencia profesional

- Prestakuntza, irakaskuntza eta ezagutzaren hedapena

- Prestakuntza kudeaketan
- Etengabeko prestakuntza espezialitatean
- Graduondoko prestakuntza
- Jarduera zientifikoa
- Irakaskuntza-jarduera

3.- Euskararen ezagutza (gehienez 6 puntu).

Euskararen erabilera Osakidetzan normalizatzeko den martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak, eta berau garatzen duten arauak, xedatutakoaren arabera baloratuko da.

4.- Eskabideak aurkezteko epea eta modua:

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko **Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko Zuzendaritzan** aurkeztu beharko dituzte eskabideak, helbide honetan: (*Begiristain dk. pasealekua, 115, Arantzazu eraikina, -1 solairua, 20014 Donostia*). Horretarako, 10 egun balioduneko epea izango dute, Ebazpen honi dagokion iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Halaber, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako leku eta moduetan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea).

Interesdunek eskabidea datu pertsonal guztiekin, eta dokumentatutako "curriculum vitae"-rekin batera, Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko (*Begiristain dk. pasealekua, 115, Arantzazu eraikina, -1 solairua, 20014 Donostia*) zuzendaritzara bidali beharko dute. Dokumentazioa honelakoa izan behar da:

- a) NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- b) Funtzionario edo estatutario langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala badagokio, lan-kontratu finkodun langilea dela egiaztatzen duen agiria.
- c) Eskatutako titulazioaren fotokopia konpultsatua.
- d) Egindako zerbitzuen ziurtagiri original eguneratua, deialdia EHAAn argitaratu zen eguneko kategoria zein den adierazita.
- e) Bete nahi den unitateko kudeaketari buruzko Memoria-Proiektua.
- f) Meritu baloragarri guztien fotokopia konpultsatua.

- Formación, docencia y difusión del conocimiento

- Formación en gestión
- Formación continuada especialidad
- Formación postgrado
- Actividad científica
- Actividad docente

3.- Conocimientos de euskera (Máximo 6 puntos).


Se valorará conforme a lo previsto en el Decreto 67/2003, de 18 de marzo, de normalización del uso del euskera en Osakidetza-Servicio vasco de salud, y en sus normas de desarrollo.

4.- Plazo y presentación de solicitudes.

Los interesados dirigirán sus solicitudes a la **Dirección de la Red de Salud Mental de Gipuzkoa** (*P^o Dr. Begiristain, 115, Edificio Aranzazu, planta -1, 20014 Donostia-San Sebastián*) de Osakidetza-Servicio vasco de salud, dentro del plazo de 10 días hábiles contados a partir del siguiente al de la publicación del Anuncio de la presente Resolución en el BOPV. También podrán presentarse en la forma establecida en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Los/as interesados/as deberán dirigir la solicitud con todos sus datos personales, acompañada de "Curriculum Vitae" documentado a la Dirección de la Red de Salud Mental de Gipuzkoa (*P^o Dr. Begiristain, 115, Edificio Aranzazu, planta -1, 20014 Donostia-San Sebastián*). La documentación deberá tener la siguiente forma:

- a) Fotocopia compulsada del DNI, pasaporte o permiso de conducir.
- b) Fotocopia compulsada del nombramiento de personal funcionario o estatutario o, en su caso, del documento que acredite la condición de laboral fijo.
- c) Fotocopia compulsada de la titulación exigida,
- d) Certificación original actualizada de los servicios prestados, con expresión de la categoría a la fecha de publicación de la convocatoria en el BOPV.
- e) Memoria-Proyecto de Gestión de la Unidad cuya cobertura se pretende
- f) Fotocopia compulsada de todos los méritos



Ez da beharrezkoa izango aurreko paragrafoan adierazi den bezala egiaztatzea CV aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala egiaztatuta badaude, beti ere izangaiak eskabidean horrela dela adierazi baldin badu.

5.- Epaimahai kalifikatzailea

Epaimahaia osatuko da, epaimahaiburu zuzendari edo hark eskuordetzen duena izanik, eta hauexek izango dira bertako partaideak: Unitate atalburu bat, eta langileen ordezkari bat, Medikuntza eta Kirurgiako lizentziaduna izan behar dena. Idazkaria Administrazioako atalburua izango da (idazkari izango dena, ahots eta botoarekin)

Epaimahaiaren saio bakoitzean dagokion akta jasoko da. Bertan, honakoa adierazi beharko da: izangaien izenak, baremazioko irizpideak, merituen baremoaren atal bakoitzean emandako puntuazioa eta emandako puntuazioa guztira.

Era berean, deialdia hutsik utziko balitz, erabaki horren arrazoiak ere jasoko dira.

6.- Hautatzeko prozedura.

Epaimahaiak baloratu egingo du izangaiak dagozkion epe eta moduan aurkeztutako dokumentazioa.

Inolaz ere ezingo dira baloratu deialdiaren Iragarkia EHAA-n argitaratzen den egunean eduki ez diren merituak, ezta eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen behar bezala aurkeztu eta egiaztatu ez direnak ere.

Deialdiko lanpostua lortzeko eskatutako gutxieneko puntuak 30 izango dira.

Izangaien balorazioa egindakoan, eta berau kontuan hartuta, proposamena osatuko da dagokion izendapena egiteko. Epaimahaiak lanpostua hutsik uztea erabaki dezake, aurretik arrazoitutako txostena osatuta, baldin eta hautagaiek eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte.

7.- Prozedurari amaiera ematen dion Ebazpena.

Hemen hasitako prozeduraren amaiera (lanpostua esleitzea edo hutsik uztea), Osakidetza Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko zuzendariaren Ebazpenaren bitartez egingo da, eta Osakidetza intraneten eta web-orrian argitaratuko da. Era berean, Iragarki bat argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

valorables

No será preciso acreditar en la forma indicada en el párrafo anterior aquéllos extremos que consten debidamente validados en la aplicación informática corporativa de CV, si bien esta circunstancia deberá hacerse constar en la solicitud que realice el aspirante

5.- Tribunal calificador.

Se constituirá un tribunal presidido por el Director o persona en quien delegue, e integrado por un Jefe de Unidad, un representante del personal con titulación de Licenciado en Medicina y Cirugía, y el Jefe de Administración (que actuará como Secretario/a con voz y voto).

Se levantará acta de cada sesión del tribunal. En la misma constará el nombre de los aspirantes, los criterios de baremación, las puntuaciones otorgadas en cada uno de los apartados del baremo de méritos, así como la puntuación total asignada.

Asimismo, se recogerán los motivos tenidos en cuenta, en su caso, para declarar desierta la convocatoria.

6.- Procedimiento de selección.

El tribunal valorará la documentación que, en tiempo y forma, fuera aportada por los aspirantes.

En ningún caso podrán valorarse méritos que no se ostenten a la fecha de publicación del Anuncio de la convocatoria en BOPV, ni tampoco los que no hubieran sido debidamente alegados y acreditados antes de finalizar el plazo de presentación de solicitudes.

La puntuación mínima exigida para acceder al puesto convocado será de 30 puntos.

Efectuada la valoración de los aspirantes, y a la vista de la misma, se elevará propuesta a fin de formalizar el oportuno nombramiento. El tribunal podrá, previo informe motivado, declarar desierta la plaza en caso de que los aspirantes no reúnan las condiciones exigidas.

7.- Resolución que pone fin al procedimiento.

La finalización del procedimiento que aquí se inicia (asignación del puesto o declaración de desierta) se llevará a cabo mediante Resolución del Director de la Red de Salud Mental de Gipuzkoa de Osakidetza-Servicio vasco de salud, que se publicará en la intranet y la página web corporativa de Osakidetza. Asimismo se publicará un Anuncio

Ebazpen horrek ondorioak izango ditu Iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bertan besterik xedatu ezean behintzat.

8.- Ebazpen honen aurkako errekurtoak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarri. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen honi dagokion iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostian, 2014ko abenduaren 31n.

en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dicha resolución surtirá efectos desde la fecha de publicación del Anuncio en el BOPV, salvo que en ella se disponga otra cosa.


8.- Recursos contra la presente resolución.

Contra la presente Resolución podrá interponerse Recurso de alzada, ante el Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del siguiente al de la publicación de su Anuncio en el BOPV.

En Donostia – San Sebastián, a 31 de diciembre de 2014

GIPUZKOAKO OSASUN MENTALEKO SAREA
ZUZENDARIA

RED DE SALUD MENTAL DE GIPUZKOA
DIRECTOR

 **Osakidetza**
GIPUZKOAKO OSASUN MENTALEKO SAREA
RED DE SALUD MENTAL DE GIPUZKOA
Iz. / Fdo. **Alvaro Iruin Sanz**